

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1863

379/2016 EBAZPENA, apirilaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuan pertsonal fakultatiboaren (BAME) osasun-prestakuntza espezializatuaren ikasketaburuaren eginkizunak, lehiaketa bidez, esleitzeko prozesuaren Hautaketako Batzordea izendatzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 26ko 192/2016 Ebazpenaren bidez, martxoaren 23an EHAAAn (57. zenbakia) argitaratutakoaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuan pertsonal fakultatiboaren (BAME) osasun-prestakuntza espezializatuaren ikasketaburuaren eginkizunak, lehiaketa bidez, esleitzeko prozesua deitzen da.

Aipatutako ebazpenaren 6. atalean ezarritakoaren arabera, eta Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-prestakuntza espezializatuko sistema antolatzeko den 34/2012 Dekretuaren 16.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak izendatuko du Hautaketako Batzordea.

Adierazitakoagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuan pertsonal fakultatiboaren (BAME) osasun-prestakuntza espezializatuaren ikasketaburuaren eginkizunak, lehiaketa bidez, esleitzeko prozesuaren Hautaketako Batzordea izendatzea; kide hauek osatuko dute:

Presidentea: M.^a Pilar Regúlez Ariño.

1. mahaikidea: Jose Luis del Cura Rodríguez.

2. mahaikidea: Ana Sáez Fernández.

3. mahaikidea: Alejandro Luis de la Serna Rama.

4. mahaikidea: Sebastián Martín Moreno.

Idazkaria: Francisco Javier Andechaga Vivanco.

Bigarrena.– Ebazpen honek duen egunetik aurrera emango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakiok Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean ebazpen hau EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilaren 11.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.